

2016/08/08

Izena/Nombre: Juan E. Mogaena  
12/37/in DNI 16269131N

LANKIDETZA-HITZARMENA, ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ETA EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKOA, NEKAZARITZAKO USTIATEGIEN EGITURARI BURUZKO 2016KO INKESTA EGITEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.

Batetik, Gregorio Izquierdo Llanes jauna, Estatistikako Institutu Nazionalaren (aurrerantzean, INE) lehendakaria. Gregorio Izquierdo Llanes jaunak erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz jardun du, bat etorrita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 6. artikuluan eta hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin eta 508/2001 Errege Dekretuak maiatzaren 11n onartu zuen Estatistikako Institutu Nazionalaren Estatutuko 5.2 a) artikuluan ezarritakoarekin.

Bestetik, Josu Mirena Iradi Arrieta jauna, Euskal Estatistika Erakundearen (aurrerantzean, Eustat) zuzendaria nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak esleitutako eskuduntzak beteaz, Gobernu Kontseilutik 2016ko apirilaren 12ko bilkuran emandako baimena dela bidez.

#### HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Abenduaren zazpiko 1658/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako 2013-2016 Estatistika Plan Nazionalak ezartzen duenez, Estatistikako Institutu Nazionalaren ardura da Nekazaritzako Ustiategiaren Egiturari buruzko 2016ko Inkesta estatuan egitea, eta azaroaren 13ko 3/2014 Legearen bidez onartutako 2014-2017 Euskal Estatistika Planak Eustati esleitzen dio Nekazaritzako Ustiategiaren Egiturari buruzko Inkesta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egiteko betebeharra.

Bai estatuak eta bai Euskal Autonomia Erkidegoak ikerketa estatistiko hori egin nahi dute, eta, horregatik, ahaleginak bateratzea komeni da; izan ere, Konstituzioko 149.1.31. artikulua araberak, Estatuak estatu-xedeko estatistiketan eskumen eskusiboa dauka, eta, abenduaren 18ko 3/1979 Legeak onetsi zuen Euskal Autonomia Estatutuko 10.37. artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumen eta xedeetarako estatistiketan eskumen eskusiboa dauka.

Horregatik guztiatilik, eta kontuan hartuta Estatistikako Institutu Nazionala eta Eustat arlo horretan hainbat aldiz lankidetzan aritu direla emaitza onekin, eta, beste alde batetik, informatzaileen zama arintzea eta erakunde publikoen baliabide eta ahaleginak aurrezteko alderdi garrantzitsuak direla, alde bietan lankidetzaz hiltzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauekin:

#### KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hiltzarmenaren xedea.

Hiltzarmen honen xedea da Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eustaten arteko lankidetzaz formalizatzea, Nekazaritzako Ustiategiaren Egiturari buruzko 2016ko Inkesta EAEn egiteko.

Bigarrena.- Metodologia, direktorioa eta galdera-sorta.

a) Hiltzarmena sinatutakoan, Estatistikako Institutu Nazionalak Eustati Nekazaritzako Ustiategiaren Egiturari buruzko 2016ko Inkestaren proiektua emango dio, baita Autonomia Erkidegoan ikertu behar diren ustiategiaren

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA Y EL EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA/INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA PARA LA REALIZACIÓN DE LA ENCUESTA SOBRE LA ESTRUCTURA DE LAS EXPLOTACIONES AGRÍCOLAS 2016 EN EL ÁMBITO TERRITORIAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

De una parte D. Gregorio Izquierdo Llanes, Presidente del Instituto Nacional de Estadística (en adelante INE), en nombre y representación del mismo, en virtud de lo dispuesto en el artículo 6 y en la disposición adicional decimotercera de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como en el artículo 5.2 a) del Estatuto del Instituto Nacional de Estadística aprobado mediante Real Decreto 508/2001, de 11 de mayo.

De otra parte, D. Josu Mirena Iradi Arrieta, Director General del Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística (en adelante Eustat), en nombre de la Comunidad Autónoma de Euskadi, según las atribuciones que le asigna La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de la autorización otorgada por el Consejo de Gobierno en su sesión de 12 de abril de 2016.

#### EXPONEN

Que el Plan Estadístico Nacional 2013-2016, aprobado mediante Real Decreto 1658/2012 de siete de diciembre, establece la responsabilidad del Instituto Nacional de Estadística de elaborar la operación estadística Encuesta sobre la Estructura de las Explotaciones Agrícolas 2016 a nivel estatal y el Plan Vasco de Estadística 2014-2017, aprobado por la Ley 3/2014 de 13 de noviembre, asigna a Eustat la obligación de realizar la Encuesta sobre la Estructura de las Explotaciones Agrícolas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi (C.A. de Euskadi).

Que la existencia de un interés común del Estado y de la C.A. de Euskadi en esta investigación estadística determina la conveniencia de aunar esfuerzos, en tanto que el Estado goza de competencia exclusiva sobre la estadística para fines estatales, según el artículo 149.1.31 de la Constitución, y la C.A. de Euskadi tiene competencia exclusiva en materia estadística para sus propios fines y competencias, según el artículo 10.37 del Estatuto de Autonomía de Euskadi, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre.

Por todo ello, y teniendo en cuenta que el Instituto Nacional de Estadística y Eustat han llevado a cabo de forma satisfactoria diversas colaboraciones en esta materia y, por otro, la importancia de reducir la carga de los informantes y de ahorrar recursos y esfuerzos públicos, ambas partes han acordado suscribir el presente Convenio de Colaboración conforme a las siguientes

#### CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.

El presente Convenio tiene por objeto formalizar la colaboración entre el Instituto Nacional de Estadística y Eustat para la realización de la Encuesta sobre la Estructura de Explotaciones Agrícolas 2016 en el ámbito territorial de la C.A. de Euskadi.

Segunda.- Metodología, Directorio y Cuestionario.

a) El Instituto Nacional de Estadística facilitará a Eustat, a la firma del Convenio, el Proyecto de la Encuesta sobre la Estructura de las Explotaciones Agrícolas 2016 así como el directorio de las explotaciones que deben ser

2016/08/08

Izena/Nombre: Juan E. Mogena  
Iz./Id. DNI 16269131N

zerrenda ere.

- b) Hiltzarmena sinalutakoan, Estatistikako Institutu Nazionalak Inkestako datuak jasotzeko erabilgarri behar diren eskuliburuak eta gainerako inprimakiak emango dizkio Eustati, eta itzulpenaz eta beharrezkoak diren aleen argitalpenaz Eustat arduratuko da.
- c) EAEn datuak biltzeko erabiliko den galdera-sorta eta Estatu osoan erabiliko dena eduki aldetik berdina izango dira, baina formatu aldetik ezberdinak, EAEkoa euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo balta. Halaber, galdera-sorta guztietan hiltzarmen hau sinatzen duten bi erakundeek anagramak erantsiko dira. Eustat arduratuko da galdera-sortaren itzulpenaz, fotokopiosazioaz eta inprimaketaz, baita gainerako bilketa-bitartekoetan instrumentatzeaz ere. Hala ere, Eustatek eranskin propioa gehitu ahal izango du EAerako bereziki interesgarria den informazioa jasotzeko. Halaber, euskarara itzuliko du posta bidezko galdera-sorta nazionalaren jarraibide-erria.

#### Hirugarrena.- Inkestaren sustapena.

- a) Bi erakundeek Nekazaritzako Ustiatuegi Egiturari buruzko 2016ko Inkesta sustatzeko gutuna bidaliko diete galdera-sorta bete behar duten ustiatuegi guztiei, inkesta hori EAEn nola egingo den azalduz. Gutuna gaztelaniaz eta euskaraz idatzita egongo da, eta Estatistikako Institutu Nazionalaren Produktu Estatistikoen zuzendari nagusiak eta Eustateko zuzendari nagusiak sinaluko dute.
- b) Halaber, inkestan bildutako datuen estaldura eta kalitatea hobetzeko EAEn beste edozein sustapen egitea aproposa izan daitekeela uste badute, bi erakundeek elkarrekin ekin ahal izango diote sustapen horri.

#### Laugarrena.- Informazioa bildu, araztu eta balioestea.

- a) Estatistikako Institutu Nazionalak, lanaren antolatamenduak hala eskatzen badu, prestakuntza-ikastaroak emango dizkie Eustateko agenteen prestakuntzaren eta inkestako informazioaren kontrolaren eta araztearen ardura duten langileei.
- b) Eustatek hautatu, kontratatu eta prestatuko ditu datuak biltzen ibiliko diren pertsona guztiak.
- c) Eustatek hartuko du osorik landa-lanaren ardura, bilketarako prozedurari eta aurretiaz Eustatekin adostu diren Estatistikako Institutu Nazionalaren arauak jarraituz, eta halaber, klausula honetako a) idatz-zalari alpatutako prestakuntzarako ikastaroaren ondorioz ezarritakoekin bat etorritik. Eragiketaren barruan, laginen ustiapenetatik eratorri ahal diren altak ikertuko dira.
- d) EAEn 2016ko azken hiruhilekoan hasiko da informazio bilketa, eta 2017ko martxoaren 15erako amaituta egon beharko da.
- e) Estatistikako Institutu Nazionalak ezarriko du ikuskapen eta kontrol sistema, Eustatekin adostuta. Bereziki, bi erakundeek inkestako datuak jasotzeari buruzko eta landa-lanaren gorabeherei buruzko txostenen egutegia eta edukia erabakiko dituzte.
- f) Informazioa biltzen hasi baino hiru hilabete lehenago, Estatistikako Institutu Nazionalak Euskal Estatistika

investigadas en la Comunidad Autónoma.

- b) El Instituto Nacional de Estadística suministrará a Eustat los manuales y demás impresos que se hayan de utilizar para la recogida de datos de la Encuesta a la firma del convenio, correspondiendo la traducción y edición de la tirada necesaria a Eustat.
- c) Para la recogida de datos en la C.A de Euskadi se utilizará el cuestionario común para todo el Estado, en cuanto a contenido, pero en formato bilingüe castellano/euskera, incorporándose en todos ellos el anagrama de las dos instituciones firmantes. Eustat se encargará de la traducción, fotocomposición y tirada del cuestionario, así como su instrumentación en el resto de medios de recogida. Eustat, no obstante, podrá incorporar un anexo propio para recoger información de interés exclusivo de la C.A de Euskadi. Realizará, asimismo, la traducción al euskera de la hoja de instrucciones correspondiente al cuestionario postal nacional.

#### Tercera.- Promoción de la Encuesta.

- a) Ambos organismos enviarán una carta de promoción de la Encuesta sobre la estructura de las Explotaciones Agrícolas 2016 en formato bilingüe castellano/euskera, firmada por el Director General de Productos Estadísticos del Instituto Nacional de Estadística y por el Director General de Eustat, a todas las explotaciones que deban contestar al cuestionario, anunciando la forma en que se va a desarrollar la encuesta en la C.A de Euskadi.
- b) Asimismo, si así lo acordasen, ambos organismos realizarán conjuntamente, en el ámbito territorial de la C.A de Euskadi, cualquiera otra promoción que se considere idónea para la mejora de la cobertura y de la calidad de los datos recogidos de la Encuesta.

#### Cuarta.- Recogida, depuración y validación de la información.

- a) El Instituto Nacional de Estadística, si la organización del trabajo lo requiere, organizará e impartirá los cursos de formación del personal de Eustat responsable de la formación de agentes y del control y depuración de la información de la Encuesta.
- b) El Eustat seleccionará, contratará y formará a la totalidad del personal que participe en la recogida de datos.
- c) El Eustat se responsabilizará íntegramente del trabajo de campo, de acuerdo con el procedimiento de recogida y las normas del Instituto Nacional de Estadística que previamente hayan sido consensuadas con Eustat y las que se deriven, en su caso, del curso de formación aludido en el apartado a) de esta Cláusula. Formará parte de la operación la investigación de las posibles altas derivadas de las explotaciones muestrales.
- d) La recogida de información en la C.A de Euskadi se iniciará en el último trimestre de 2016, debiendo estar finalizada el 15 de marzo de 2017.
- e) El Instituto Nacional de Estadística, de acuerdo con Eustat, establecerá el sistema de inspección y control. En particular, ambos organismos acordarán el calendario y contenido de los Informes sobre la recogida de datos y sobre las incidencias del trabajo de campo de la Encuesta.
- f) El Instituto Nacional de Estadística enviará a Eustat, tres meses antes del inicio de la recogida de información, las

2016/08/08

Izena/Nombre  
Iz./Fdo

Juan E. Moga  
DNI 16269131N

Erakundeari galdera-sortak eskuz arazteko arauak bidaliko dizkio, baita grabazioaren erregistro-diseinua eta galdera-sortaren aldagaien balioespanak ere.

- g) Grabatzen diren datuak balioespenerako eta kontrol logikorako prozesu automatiko baten barruan sartuko dira, Estatistikako Institutu Nazionalera bidali baino lehen informatikoki tratatzeko. 2017ko martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira datuak, ezartzen zaien balioespan- eta kontrol-prozesuari buruzko txostenarekin.
- h) Eustatek grabaketarekiko fitxategia bidali ostean, Estatistikako Institutu Nazionalak egiaztatu egingo du. Hamabost eguneko epean jakinaraziko dio Estatistikako Institutu Nazionalak Eustati fitxategia onartu den edo, aitzitik, onartu ez den. Onartzen ez bada, itzuli egingo zaio (arrazoiak emanez) eta, orduan, Eustatek aurreko epe bera izango du grabaketak zuzendu eta itzultzeko.
- i) Estatistikako Institutu Nazionalak Eustati EAEn dauden ustialagien amalerako fitxategiaren kopia itzultiko dio, informazioa guztiz araztu eta balioetsita, eta dagozkion goratzeko faktoreekin, beranduenez 2017ko abenduaren 15ean.

#### Bosgarrena.- Emaitzen zabalkundea.

- a) Eustatek bidezkotzat jotzen dituen EAeri buruzko taulak argitaratu ahal izango ditu, baldin eta laginaren diseinuak horretarako aukera ematen badu.
- b) Estatistikako Institutu Nazionalaren behin betiko fitxategiak oinarri hartuta Inkestaren emaitzak zabaltzeko egiten diren produktu guztietan honako hau adierazi behar da: "Iturria: INE, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Estatistika Erakundea/Institutu Vasco de Estadística (EUSTAT) erakundearen lankidetzarekin".
- c) Era berean, Eustaten behin betiko fitxategiak oinarri hartuta Inkestaren emaitzak zabaltzeko egiten diren produktu guztietan honako hau adierazi behar da: "Iturria: EUSTAT, Euskal Autonomia Erkidegoan Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) lankidetzarekin".
- d) Estatistikako Institutu Nazionalak balioetsi ez duen fitxategia oinarritzat hartuta argitaratzen den informazioan beren beregi azaldu beharko da emaitzak behin-behinekoak direla.
- e) Hitzarmena sinatzen duten bi erakundeek modu koordinatuan emango dituzte argitara Inkestaren gaineko behin betiko datuak, aldez aurretik beraiek ezarritako datan. Euskal Autonomia Erkidegoko datuak Espainiako eremuan kokatzeko, INEK Espainiako agregatu nagusien datuak emango dizkio Eustati, emaitzak zabaltzeko ezarritako data baino hiru lanegun lehenago.

#### Selgarrena.- Estatistika-sekretua.

Estatistikako Institutu Nazionalak eta Eustatek informazioa erabiltzen denean banakako datuak guztiz babestuta geratzen direla bermatzeko ardura izango dute. Lanetan parte hartzen duten langile guztiak behartuta egongo dira estatistika-sekretua gordetzera, bai eta Funizio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea aplikatuz eratorritzen diren murrizketak betetzera ere.

normas de depuración manual y el diseño de registro de grabación con el formato y las validaciones de las variables del cuestionario.

- g) Los datos grabados serán sometidos a un proceso automático de validación y control lógico antes de ser enviados al Instituto Nacional de Estadística para su tratamiento informático. Este envío se realizará antes del 31 de marzo de 2017 junto con un informe sobre el proceso de validación y control al que hayan sido sometidos.
- h) Remitido el fichero con la grabación por Eustat, el Instituto Nacional de Estadística procederá a su comprobación. En un plazo de quince días el Instituto Nacional de Estadística comunicará a Eustat la aceptación o el rechazo del fichero. En el último supuesto se procederá a su devolución, indicando los motivos, y en igual plazo Eustat procederá a su corrección y devolución.
- i) El Instituto Nacional de Estadística devolverá a Eustat una copia del fichero final de las explotaciones ubicadas en la C.A de Euskadi, con la información totalmente depurada y validada y con los factores de elevación que correspondan, no más tarde del 15 de diciembre de 2017.

#### Quinta.- Difusión de los resultados.

- a) Eustat podrá publicar las tablas referentes a la C.A de Euskadi que considere oportunas, siempre que lo permita el diseño muestral.
- b) En cualquiera de los productos de difusión específicos de los resultados de la Encuesta a partir de los ficheros definitivos que realice el Instituto Nacional de Estadística se hará constar «Fuente: INE en colaboración con el Euskal Estatistika-Erakundea/Institutu Vasco de Estadística (EUSTAT) en la Comunidad Autónoma de Euskadi».
- c) Igualmente, en cualquiera de los productos de difusión específicos de los resultados de la Encuesta a partir de los ficheros definitivos que realice Eustat se hará constar «Fuente: EUSTAT en colaboración con el Instituto Nacional de Estadística (INE) en la Comunidad Autónoma de Euskadi».
- d) En cualquier difusión de la información que se realice teniendo como base el fichero sin validar por el Instituto Nacional de Estadística, se hará constar el carácter provisional de los resultados.
- e) La difusión de los resultados definitivos de la Encuesta se realizará de manera coordinada por parte de los dos organismos firmantes en la fecha previamente establecida por los mismos. Con el objeto de contextualizar los datos de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ámbito de España, el INE facilitará a Eustat los datos de los principales agregados de España tres días laborables antes de la fecha establecida para la difusión de los resultados.

#### Sexta.- Secreto estadístico.

El Instituto Nacional de Estadística y Eustat se responsabilizarán de que la información se utilice de forma que la protección de los datos individuales quede totalmente garantizada, estando sometido todo el personal que participe en la elaboración, a la obligación de preservar el secreto estadístico, así como a las demás restricciones que se deriven de la aplicación de la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública y la Ley 4/1986, de 23 de abril, de



2016/08/08

Izena/Nombre: Juan E. Mogena  
Iz. Afila: DNI 16269131N



**Zazpigarrena.- Jarraipen Batzorde Teknikoa**

Hitzarmen honen jarraipena egingo duen batzorde teknikoak sortu da. Hauek izango dira batzorde horretako kideak:

Estadistikako Institutu Nazionalaren aldetik:

- Ingurumeneko, Nekazaritzako eta Finantzetako Estatistiken zuzendariorde nagusia.
- Produkzio Estatistikoa eta Laginketa Kontrolatzeko Departamentuko pertsona bat.
- Estatistiken eta Lan Estatistiken eta Prezio Estatistiken Zuzendaritza Nagusiko pertsona bat.

Eustateñ ordezkariak:

- Estatistika Produkzioko eta Analisisiko zuzendariordea.
- Estatistika-azpiegitura arloko arduraduna.
- Arlo Juridiko eta Administratiboko arduraduna.

Hitzarmen hau interpretatu edo burutzean sor daitezkeen desadostasunak edo eztabaidak Jarraipen Batzorde Teknikoak ebaztuko ditu.

**Zortzigarrena.- Finantzaketa.**

Estadistikako Institutu Nazionalak Eustati, bere Gastuen Aurrekontulik, laurogeita hiru mila euroko (83.000 euro) kopuru zehatza ordainduko dio, Eustatek hitzarmen honen ondorioz egin dituen lanengatik.

Estadistikako Institutu Nazionalak honela ordaindu beharko dio Eustati kopuru hori:

%50a, berrogeita bat mila eta bostehun euro, hasierako direktorioa osatzen duten laginaren unitateen % 30 bildu dela egiaztatzen duen ziurtagiria jasotzean, Euskal Estatistika Erakundeak emana; 2016ko gastuen aurrekontuen kargura ordainduko da.

Gainerako %50a, berrogeita bat mila eta bostehun euro, laugarren klausulako g) puntuan azaltzen den grabaketa-filxategiko informazioa Estadistikako Institutu Nazionalak balioetsi eta onartu ondoren, 2017ko gastuen aurrekontuaren kontura.

**Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren Indarraldia.**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta hitzartutako lanak burutu arte eta Estadistikako Institutu Nazionalak zortzigarren klausulan ezartzen den ordainketa egin arte.

Ez da hitzarmenaren luzapenik aurreikusi.

**Hamargarrena.- Aplikatu daitezkeen araubide Juridikoa eta Jurisdikzioa.**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginetik baztertuta geratuko da, Lege horren 4.1.c) artikulua araberak. Hala, bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. eta 8. artikuluek arautzen dute.

Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Séptima.- Comisión Técnica de Seguimiento.**

Se crea una Comisión Técnica de Seguimiento de este convenio que estará integrada por:

Por parte del Instituto Nacional de Estadística:

- El Subdirector General de Estadísticas de Medioambiente, Agrarias y Financieras.
- Una persona del Departamento de Control de la Producción Estadística y Muestreo.
- Una persona de la Dirección General de Coordinación Estadística y de Estadísticas Laborales y de Precios.

Por parte de Eustat:

- La Subdirectora de Producción y Análisis Estadístico.
- El Responsable del Área de Infraestructura Estadística.
- El Responsable del Área Jurídico-Administrativa.

Cualquier discrepancia o controversia que se suscite en la interpretación ó ejecución de este Convenio se someterá a la decisión de la Comisión Técnica de Seguimiento.

**Octava.- Financiación.**

El Instituto Nacional de Estadística, con cargo a su Presupuesto de Gastos, abonará a Eustat la cantidad cierta y determinada de ochenta y tres mil euros (83.000 euros), por los trabajos realizados por Eustat como consecuencia de este Convenio.

El abono por el Instituto Nacional de Estadística a Eustat de dicha cantidad se realizará de la siguiente forma:

El 50%, cuarenta y un mil quinientos euros, a la recepción de certificación, por parte de Euskal Estadistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, de haberse realizado la recogida del 30% de las unidades de la muestra que componen el Directorio Inicial, con cargo al presupuesto de gastos del año 2016.

El restante 50%, cuarenta y un mil quinientos euros, una vez validada y aceptada por el Instituto Nacional de Estadística la información del fichero de grabación enviado por Eustat al que hace referencia el punto g) de la cláusula cuarta, con cargo al presupuesto de gastos del año 2017.

**Novena.- Vigencia del Convenio.**

El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de su suscripción y mantendrá plena vigencia hasta la total terminación de los trabajos acordados en el mismo y de la realización por parte del Instituto Nacional de Estadística del pago previsto en la Cláusula Octava.

No se prevé la prórroga del convenio.

**Décima.- Régimen Jurídico y jurisdicción aplicables.**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se encuentra excluido del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en virtud de su artículo 4.1.c). Así mismo se regula por los artículos 6 y 8 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.



2016/08/08

Izena/Nombre  
Iz./Fdo

Juan E. Mogena  
DNI 16269131N



Bestalde, aipatutako 30/1992 Legearen 8.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, protokoloa indarrean dagoen bilartean sor daitezkeen auzi eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, hura arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorritz.

Horrenbestez, ados daudela adierazteko, lankidetzazko hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, 2016ko uztailaren 15ean.

**EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEKO ZUZENDARI  
NAGUSIA,  
EL DIRECTOR GENERAL DE EUSKAL ESTADISTIKA  
ERAKUNDEA / INSTITUTO VASCO DE  
ESTADISTICA,**

EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE ESTADISTICA  
Fdo.: Josu Iradi Arrieta

Por otro lado, y a tenor de lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992 citada, las cuestiones litigiosas que se pudieran suscitar durante la vigencia del mismo serán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, de conformidad con su Ley reguladora 29/1998, de 13 de julio.

Y, en prueba de conformidad, firman el presente Convenio de Colaboración, por duplicado ejemplar, a 15 de julio de 2016.

**ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALEKO  
PRESIDENTEA  
EL PRESIDENTE DEL INSTITUTO  
NACIONAL DE ESTADISTICA,**

Sin./Fdo.: Gregorio Izquierdo Llanes

